

Pedro Agramont Zaldibar notario tuterarrak 1632an amaituriko 'Nafarroako Historia' argitaratuko du Mintzoak Iruñeko argitaletxeak urte hau amaitu baino lehen. Eskuizkribu hau ezezaguna zen duela zenbait hilabetera arte, Segundo Otazuk Silosko monasterioan aurkitu zuen arte alegia. NAFARKARIAK lan honen hainbat pasarte eskuratu ditu, eta bertan irakur daitezke

## Nafarroako lehen historia

adituen artean interes handien piztu dituzten oharrak, bereziki euskarari buruzkoak. Agramontek erromatarren garaitik datozen tradizioak errepikatu egiten ditu, baina biziki harritu dituzte adituak hainbat euskal hitzen jatorriari buruzko azterketak eta hizkuntzarekiko erakusten duen atxikimenduak. Izan ere, Tuteratik euskararen apologista sutsu gisa azaltzen baita Agramont.



### Zubian barna

BINGEN AMADOZ

**A**urrera doa ekaina eta ia oihartu gabe gainean dauzkagu sanjuanak, San Juan gaua ta su misteriotsu ta majikoak, txarrak uxatzekoak izan ohi direnak. Izan, badira beti ahantzi beharrekoak, erretzeko direnak, kea besterik merezi ez dutenak. Ez nahiz gizakietaz ari. Otoi! Nahiko inkisidore izan ditu kondairak!

Nafarroako politika egiteko era aldatzekotan dagoela sinistu nahiko nuke, ordea. Gauzak

aldatu beharko liratekeela diote agintea duten batzuk eta pasatako begirune gutxiko denboraldi luzeari bukaera eman dakiokela pentsatzeak bakarrik poza ematen du. Agian berriz ere hutsean geratuko zaizkigu gure itxaropen apurrak bainan...



### Sanjuanak

Ematen du historiako orri ustel bezain tamalgarrietara pasatzekotan daudela Urralburu, Jaime eta UPNeko dinosauruen urrezko garaiak. Agian zerbait aldatuko dute funtsezko ezer mugitu ez dadin, baina egia da ere azkenaldian gertaturikoak gertatu ondoren,

deus ez dela berdin izanen. Jarrerak eta hitzek ezin dute lehengoak izan, geroz eta hobekiago ezagutzen baikara denok, administratzaileekiko geroz eta zorrotzagoak garelako.

Arazo handi ta ugari ditugu oraindik ere gure artean, premiazko soluzioa eskatzen dutenak eta ez da seguruenera batto ere izanen hitzaren bitartez bideratzerik ez duena.

## GUERE AUKERAK

### ANTZERKIA



**Iruña Pequeño Teatro** antzerki taldeak 'Bazter utzitako panpinaren istorioa' izeneko lana taularatuko du bihar larunbata, hilak 17, Kasedan. Gaueko 10.00etan hasita, herriko pilotalekuan izanen da.

'**Babalibu! Babaliba!**' izeneko antzezlana taularatuko du bihar larunbata, hilak 17, Teatraro taldeak Iturmendin. Udaberriko Bira programaren barruan, arratsaldeko 5.30etan izanen da.

**Teatraro** antzerki taldeak 'Velocicles & Clowns' izeneko lana taularatuko du asteburu honetan Beire eta Eskirotz herrietan. Bihar larunbata Beiren izanen dira, arratsaldeko 8.30etan, herriko plazan; igandean, berriz, Eskirozko plazan antzeztuko dute aipatutako lana, eguerdiko ordubatean.

### MUSIKA



'**Negu Gorriak**', 'Dut' eta 'Piperrak' musika taldeen kontzertua izanen da bihar larunbata, hilak 17, Tuterako Zezen Plazan. Nafarroa Oinez-en antolatzaileek prestatua, gaueko 9.00etan hasiko da. Sarrerak takillan 1.200 pezetan salduko dituzte eta aurretik erosita 1.000 pezetan. Tuterako Oskorri eta Amadeus tabernetan, Tuis disketean eta Nafarroa Oinez bulegoan daude salgai.

'**Baldin Bada**' 'Eskorbuto' eta 'Nahizer Bizkor' musika taldeek kontzertua eskainiko dute larunbat honetan, hilak 17, Iruñean, Gaztetxeak antolatuta. Gauean izanen da, Arrotxapeko Lokal okupatuan.

### BERTSO SAIOAK



**Jon Sarasua** eta **Jokin Sorozabal** bertsolarien saioa izanen da gaur ostirala, hilak 16, Iruñeko Arrotxapea auzoan. Bertso afari moduan antolatua, gaueko 9.30etan hasiko da.

**Anjel Mari Peñagarikano**, **Sebastian Lizaso** eta **Andoni Egaña** bertsolariek saioa eskainiko dute bihar larunbata, hilak 17, Iruñeko Amaur ikastolan. Bertso bazkari moduan antolatua, eguerdiko 13.30etan hasiko da.

**Manu Gomez** eta **Bittor Elizagoien** bertsolarien saioa izanen da igande honetan, hilak 18, Eugin, herriko Jai Batzordeak antolatuta. Bertso bazkaria izango denez, eguerdiko ordubatean hasiko da.

**Sebastian Lizaso** eta **Iñaki Murrutxuketa** bertsolarien saioa izanen da heldu den astelehenean, hilak 19, Lizarragan. Bertso afari moduan antolatuta, gaueko 9.00etan hasiko da.

## NAFAR KRONIKA

PATXI LARRION

# Sunbilla, Literatura eta balizko hitzarmenak

Aurrerazaletasuna, modan jarri den hitza. Nafar gizarte inoiz baino aurrerazaleagoa azaltzen ari zaigu. Lau alderdien balizko hitzarmenak hori lortzea du hel-tandar batzuek eman omen zuten urratsa da duda, izpirik gabe, deigarriena. Gertakizun hau ulertzeko eragilearen aldatzea ezagutu behar. Bigarren saialdian lortu du zinego-udal hauteskundeetan besteak beste hori zen gehien nabarmendu zuena, alor horretan esperientzia duen gizona dugu. Aurreko astean Meoki jaunak bitartekari lanean duen



buru. Eztabaidan ari diren bitartean saio hori kontraturatuta dela aldarrikatzen dutenak ez dira atzean gelditu. Abortoa gobernu berriaren jaiobidea eragozteko hauen arrazoi nagusia. Horra hor gizarte honen aurrerazaletasuna.

Iruñean egosten ari denaz gain, gure lurralde zabal bezain nabarreen bestelako mugimenduak eman dira, eta pasa den astean Malerrekan baz-

tzi izatea, baina politikan sartu baino lehen ezaguna zen gizartean egindako lanarengatik. Bere pertsonaz gogoan dudan lehenbiziko notizia, duela bost urte, Donezteben ospatu behar zen aizkolari apostuaren kartela da, horrek erantsita zuen publizitateak Benetton anaiaena bazter utzi zuena. Ekonomia mailan egin duen lana eredugarria dela ezin uka, duela lau urtetako

abilezia frogatu zigun, inolako akordiorik lortu ez arren balizko bi muturrak mahai berean eseri baitzuten. Luze mintzo omen ziren. Begibistakoa da gizartean eragiteko duen gaitasuna. Nafar gizartean horren faltan omen gaudela. Literaturak geopolitikak bezainbeste argitu dezake afera. Sunbilla izan behar zen. Euria ari zuen. Alta, ur uherak ba ote ziren ezin jakin.

## ASTEKO PERTSONAIAK



**Pedro Mari Zabala**  
Entrenatzailea

**Pedro Mari Zabala** Osasuna futbol taldeko entrenatzaile ohia, Madrileko Rayo Vallecano taldeko arduradun berria da joan den asteartean geroztik. Pedro Mari Zabalak 51 urte ditu eta abenduaren 20an utzi zuen Osasuna, ia zazpi denboralditan zehar 1993. urteko abenduaren 20an Osasuna utzi zuen arte, ia zazpi denboraldi izan zen gorritxoaren entrenatzaile. Osasunatik alde egin ondoren, atsedean hartu nahi zuela erran bazuen ere, Rayo Vallecano taldearekin akordioa lortu bezain pronto, kirol mundura itzultzeko irrikitan zegoela aitortu du. Jose Maria Ruiz Mateos enpresari ezagunaren taldearen eskutik, beraz, lehen mailara itzuliko da entrenatzaile nafarra datorren denboraldian.



**Natxo de Felipe**  
Abeslaria

**Oskorri** musika taldeak bere azken diska aurkeztu du aste honetan Iruñean, 'Landalan' izeneko, taldearen hamabosgarrena, hain zuzen. Bertan, 17 abesti agertzen dira, mota ezberdinetakoak eta taldekoak ez diren beste abeslarien partehartze batzuekin. Natxo de Felipe Oskorriko kideak ziur azaldu zuen diska hau «orain arte egin dugun onena» dela, «beste esparru batzuetan sartu gara, erritmo ezberdinak hartuz, konponketa bereziki». Elkar disketeak atera du eta dagoeneko salgai dago Euskal Herriko toki askotan, arrakasta handiz gainera. Heldu den urtean 25. urteurrena ospatuko du Oskorri, urte asko, beraz, musika eskaintzen, baina ez dira hasierakoan geratu, aurrera egitea eta freskotasuna ematea baita beraien helburua.

## ZINEMA



### Emakumeen Zinemaren XI.

Erakustaldia antolatuta du egun hauetarako Iruñeko IPES elkarteak emakumearen sailak. Joan den ostegunean hasita, heldu den aste osoan emanaldiak izanen dira Golem zinematan, arratsaldeko 8.00etan. Egun bakoitzean, laburmetrai eta luzemetrai bat eskainiko dituzte, gonbidatu batekin, proiektioaren ostean eztabaida sortzeko asmoz. 'Geroztik ere' Begoña Vicarioren laburmetraia eta 'Los silencios de Palacio' Tunezeko Moufida Tlatli zinemagilearen laburmetraia botako dituzte astelehenean. Gonbidatua Paloma Gonzalez feminista izanen da. 'Solo tu, solo yo, solo tu y yo' Arantza Velarena eta 'Mina Tannenbaum' Martine Dugowson zuzendariaren lanak ikusgai izanen dira asteartean, gonbidatua Luisa Etxenike idazlea izango delarik. Asteazkenean, 'Los muertitos' Isabel Herguerarena eta 'El jardin del Eden' Maria Novarrena botako dituzte eta gonbidatua Merce Coll zinemagilea izango da.

### ADI!

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenean ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

#### KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...

Doneztebe

Kartzelako gaia

Juan Kruz Lakasta

# Trikitixa Txapelketa Bordatxon

P.U. / ARBIZU

Hamabost bikote aurkeztu dira igande honetan zabalduko den Nafarroako Trikitilarien II. Txapelketarako eta, hortaz, antolatzaileek bi kanporaketatan banatu dituzte. Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan egingo da igande honetan lehen kanporaketa, arratsaldeko 6etatik aurrera, eta horretan zazpi trikiti bikotek hartuko dute parte, gehienak Sakanakoak eta Sunbillakoak.

Hauek dira, hain zuzen ere, izena eman dutenak. Arbizu eta Etxarritik bi bikote aurkeztuko dira: Iruñe Agirre eta Onditz Artieda, alde batetik, eta Iñaki Mendinuena eta Iñaki Mundiñano, bestetik. Sunbillako hiru bikotek eman dute izena: Amaia Aristegi eta Xabier Aristegi, Ainara Mindegia eta Arkaitz Mindegia, eta Haizebel Mindegia eta Ainara Arretxea. Iturengo bikote bat ariko da jo ta soinu: Arantxa Aristegi eta Irune Aristegi, eta Goizuetako beste bikote bat: Saioa Taberna eta Olatz Apeztexea.

Bikote guztiak baserritar erara jantziak joanen dira, eta arratsaldeko bost terdietarako bertan



Zazpi bikote ariko dira igandean Bordatxon.

egon beharko dute, denen artean zozketa egiteko. Orduan erabakiko da zein ordenatan parte hartuko duten.

Bigarren finalerdia Arbizuko Herriko Plazan antolatu da heldu den ekainaren 24rako, larunbata alegia. San Joan eguna eta Arbizuko jaien hasiera izango da horrenbestez, eta giro aproposa espero dute Arbizuko Trikitixa Eskolak eta Festa Batzordeak, bien artean prestatu baitute kanporaketa hau. Arratsaldeko zazpietan hasiko da emanaldia.

Beste zortzi bikote ariko dira Sakanako herrian eta hemen Goizuetako taldeak izanen dira nagusi. Hiru dira herri honetatik izena eman duten bikoteak: Irune Zabala eta Patxi Zabala, Dani Narbarte eta Ainara Narbarte eta Amaia eta Karolina Lujanbio. Berak Amaia eta Joseba Irastorza ere egongo dira lehian, eta Lesaka eta Aranoko Jone Elgorriaga eta Izaro Ansa. Leizatik Nerea Erbitik eta Ainara Bengoetxeak osaturiko bikoteak parte hartuko du, eta baita Lezaungo David Nuñez eta Loren Nuñez bikoteak ere.

Final handia Iruñeko Peñen Egunean egingo da, Sanferminen atarian beraz, iaz bezala.

## Patata

Ordura arte nire buruaz harro nongoen, kontent nintzen, planto egin izanagatik. Bazkari hartan, baina, patata purea, patata frijituak eta % 99 patata egosiz osaturik zegoen haragi gisatuaren aitzinean, Usetxik, tontamentian, harrotasunaz puzturik nuen bularra zitzada bakar batez hustu zidan. Supitoki eta eguraldiaz hitz egiten egonen bailitzan, holako galdera zorrotz eta txikitzailea bota zuen: «Nork pentsa dezake planto eginez, kartzelan sartuz, mundu osoko ejerzitoak desgertaraz ditzakeela?».

Une horretara arte Ronald Reagan baino azkarragoa nintzela uste nuen. EEBBetako lehendakariarik eta aktorearik txarrena izandakoak ezin ei zituen bi gauza aldi berean egin. Esate baterako, ezinezkoa omen zitzaion aldi berean ibiltzea eta txikle jatea. Usetxiren galderak, ordea, nik ere antzeko arazoak ditudala erakutsi zidan,



## Baztan

# Baztandarren Biltzarrerako kartela

IRUÑEA

Aurtengo Baztandarren Biltzarreraren edizioak badu dagoneko kartela, oraingo honetan Iñaki Martiarena marrazkigile donostiarrak egin. Ohi bezala, kartelerako deia izan da jai honen estreinako iragarpena, nolabait badatorrela ohartarazten duena. Aurtengo irabazlea EGUNKARIAko langilea da, eta esperientzia handia du marrazkigintzan, argitalpen askotan parte hartu baitu. Napharteid-eko bultzatzaileetako bat duela gutxi arte, infografia eta marrazki lanak egiten ditu egun EGUNKARIAN.

Ohi bezala, 'Euskarak batzen gaitu' da kartelaren lelo nagusia, eta Baztango banderaren fondo zuri eta beltzaren gainean, festaren ikur ezagunenak azaldu ditu marrazkigileak: lauburu, karrroza, eta txistularia, modu atsegin eta erakargarrian.

Gogoratu aurtengo edizioa uztailaren 16an ospatuko dela Elizondon, eta bertan bailara osoko herriek prestatutako karreroz segizioa ikusi ahal izango dela, eguneko ekitaldi nagusia.

## Arbizu

# Frontoiak atek zabalduko ditu larunbatean

P.U. / ARBIZU

Arbizuko frontoian lehen partiduak jokatu dira asteburu honetan, nahiz eta inaugurazio ofiziala San Joan egunean egingo den. Bihar, larunbata, eta Espainiako Telebistako kamerak bertan izango direla, Capellan-Errasti eta Titin III-Errandonea ariko dira aurrez aurre, Euskadiko txapelketaren barruan. Azken uneko baja izan da Retegi II, inaugurazio honetako izar nagusia, baina eskuetan mina zuen eratsundarrak, eta hori antzeman zitzaion joan den asteartean galdu zuen partiduan, sei tanto besterik ez baitzuen egin. Pena da, Sakanako jende asko gogoz baitzen partiduen esperoan.

Kiroldegiaren inaugurazio ofiziala, beraz, herriko festetarako utziko da, behar bezala egiteko. Agintariak, musika eta abesbatza izango dira bertan, eta orduan ikusi ahal izango dute arbizuarrek barrutik bideberri ondoko eraikin dotorea.

argi geratu baitzen ezin dudala aldi berean patata frijituak jan eta galdera zail honi erantzun aproposa bilatu. Eztulka hasi nintzen, eta itotzear nengoelarik, Usetxik berak erantzun zuen airean geratutako galdera. «Bada, gallinfanta bezain tontolapikoa den batek, beste inork ez». Ez zen hor geratu, eta bere argudio txikitzaileekin aurrera segitu zuen. «Tuntunak gara, plantatu garen intsumisoak tuntunak gara. Zer egiten dugu hemen? Ez ditugu, ebidentemente, ejerzito guztiak desgertaraziko. Ze demontre egiten dugu hemen?».

Zorionez, oraindik ere ezta rrian min ematen zidan patata frijituak erantzuna ezpaineratu zidan: «Egunero-egunero gutariko bakoitzak batz beste kilo bat patata jaten dituela kontuan hartuz, Arabako ekonomia altxatzen ari gara». Horri esker, biok lasai-lasai geratu ginen. Ongi pentsatuta, agian egia da, agian gallinfanta baino tontolapikoagoak gara gu.





## Erresuma hartan

**Galdera:** Urte asko da gertatu zela kostaldeko erresuma batean. Han Annabel Lee bizi zen, horixe zen haren izena. Ez zuen bestean pentsatzen, ni maitatzen eta nik maitatua izatean baizik. Neskatxa bat zen, eta ni kozkortu gabeko mutila, itsaso ondoko erresuma hartan. Amodioa baino zerbait gehiago zen gu uztartzen gintuena, ene Annabel Lee eta biok. Zeruko aingeruek begitan gintuzten, bekaizak jota.

Eta horrexegatik hormatu zuen haize hotz batek, duela urte asko, itsaso ondoko erresuma horretan, Annabel Leeren bihotza. Etorriko zen bere familia-koren bat, itsaso, itsaso harro ondoko erresuma hartan ehorts zezan eta betiko nigandik urrundu Annabel Lee. Zeruko aingeruak, denek dakitenez, ez ziren gu bezain zoriontsuak, ezta ifernu iluneko deabruak ere, eta guk baino askoz ere gehiago zekitenak ere ez ziren gu baino zoriontsuagoak. Eta inork eta ezerk ez ditu gure gogoak lekutu, ez dute izarrek zerua argituko nik haren baitan pentsatu gabe, eta hola pasatzen ditut gauak, haren hilobian etzanda, itsaso ondoko erresuma honetan, itsaso harro horren ondoan.

**Erantzuna:** Maiz asko uste hori dugu, gu baino altuagoa den norbait dabilelako gurekin jostaketan.

**Galdera:** Nazioarteko emakume-konkistatzaile ospetsu bat naiz. Tokian tokiko dut gogoko. Zein izan liteke Euskal Herriko toki tipiko bat neskak biziki liluratzeko?

**Erantzuna:** Amodiozko harreman bat hasteko oso leku aproposa frontoia da. Neska guti aurkituko duzu hortxe, baina oso interesgarriak. Gainera hemendik gutxira euskal pilota tenisen antzera egingen da, eta tenis partiduetan neska asko agertzen dira, telebistan bederen. Tenis partiduko errealizadoreei ez zaie tenisa gustatzen, neska panpoxak baizik. Joan frontoira eta jar zaitez neskaren



*«Maiz aski uste hori dugu, gu baino altuagoa den norbait dabilelako gurekin jostaketan».*



*«Amodiozko harreman bat hasteko oso leku aproposa frontoia da. Neska guti aurkituko duzu hortxe, baina oso interesgarriak».*

ondoan; ahalik eta hurbilen, beldurrik gabe, leku-estutasuna dela eta oso normala baita bata bestearen kontra egotea. Gero hasi mintzatzeko, inongo ateraldi xeberrik erabili gabe. Galdetu nor diren pilotariak. Antzeman eta atzeman zein duen gogoko, eta haren alde apostatu. Ohi denez, aldamenen fariak erretzaile baten errautsa neskaren altzoan erortzen baldin bada, zure behatzekin zapaldu, eta hautsarik ez balego, berdin-berdin. Edozein gauzak balio du zure ezitasuna azaltzeko. Neskaren gona arrastaka baldin badao zoraluze zikinean, gora iezaiozu gona; gainera inongo trabarik gabe ikusiko duzu neskaren zangoxunta.

Gibelean duzunarekin kontuz gero. Ez ditzala paratu bere zango zakarrak neskaren bizkarraren kontra. Nabardura txiki hauek dira zeru zabaleko izpirituak hunkitzen dituzten gauzak. Pastoralak ere oso leku aproposak dira. Gainera, zenbait tokitan, gizonezkoek baino ezin dute antzestu. Eta kon-

petentzia gutxi izaten da, gizonezko guztiak turkoarenak-eta egiten aritzen diren biztartio. Hauxe eta berau da pastoralak Hegoaldean desagertu izanaren arrazoia. Erromako sabinarren bahiketa oso famatua da, baina ez da makalagoa Zaldugoitin gertatu zena. Gizonezko guztiak taula gainean, eta Zaldubetikoez neskak hartu eta lekutu. Horrez geroztik pastoralak Hegoaldean gutxitan eta jagoleekin.

## Klasiko bitxi arront klasiko

Joxemiel Bidador

## Eugenio Abiranetaren gutun apokrifoak

Karlisten eta liberalen arteko espioi sonatuaren ibilerak



Eugenio Domingo Abirana Ibargoien Etxegarai Alzate izeneko pertsonai ahortzia, nahiz Madrilen sortu zen 1792. urteko azaroaren 13an, euskal senide baten altzoan hazi zen, bere abizenek orok salatzen duten moduan. Aita Bergarako semea zuen, Espainiako hiriburuari buruz soldadu gisa joana, eta ama Irungotarra zen. Berako etorkia ere agerian gera liteke Alzate laugarren deiturak aditzera ematen duenez. Gazte zelarik Irunera abiatu zen idazkietan irundarratzat jo izan baita Abirana jauna. Handik, behin baino gehiagotan Baionako bidari lotu omen zitzaion, bertan masonen lagundian sartarazi zutelarik. Zinez liberala eta errepublikazalea, cordoliers-en taldea sortu Danton eta Robespierre jakobindarra pertsona eredugarri bazituen nonbait. Horrez gain, beste lau lagunekin batera Abentino izenez ixilpeko elkarte masonikoa sortu zuen, Irun, Baiona, Donibane Lohitzune, Hondarribia eta, orohar, Bidasoa aldeko 27 kide inguru izan zituen.

Leku frangotan egondakoa, Afrikan eta Mexikon besteak beste, agintariekin arazoak zituela arrazoi, legegintza lanetan jardun zen, eta zelatari behar baino ezagunagoa agitu zen noizbait ere. Esaterako, lehendabiziko gerrate karlista zela eta, 1838. urtean Karlos erregegaiaren aldekoek beren saioak eginak zituzten Mantxa, Andaluzia eta Afrikako lurak matxinatzeko. Alabainan, kristinoek hola edo nola horren berri izan zituzten Baionatik igorri zenbait gutunei esker. Ordurako egungo estatuko zerbitzu sekretuak ba omen zeuden asmatuak, bai ondikotz! Abiranetari mandatu eman zitoten gobernazioaren ministeritzatik, eta konkretuki ministro zegoen Pio Pita Pizarro zenak, aferari konponbidea emateko. Erregina ere berarekin bildu zen Baiona alderat abiatu aurretik. Maria Kristinak ez zituen arazorik nahi eta behar sosa adina eskaini zion.

Ordurako karlisten tirabiraren bat hasia zen. Martxoan, soldadak jasotzen ez zirela eta liskarra jazo zen gudari karlisten artean. Horrelakoez gainera, oroitu beharra dago gatazkaren bi aldeetan zatiketarik zeudela, eta karlisten artean, bazeudela Marrotoren aldekoak, hau da moderatuak, nahiz Arias Teijeirori egokitzen zirenak, erradikalenak alegia. Abiranetak bere plangintza aitzina eraman ahal izateko, zenbait espia bazituen sarturik karlisten artean, haien artean Iturri izeneko nafarra, Baionan tabernari aritzen zena, edo Luis Arretxe izeneko Almandozko Barretxeakoa.

Berak uste zuen Euskal Herrian gerra xahututa, gatazkaren amaiera

burutuko zela. Horrela izanda, berlanari sendo lotu zitzaion, 1839. urtearen abuztuaren 31an Bergarako besarkada sonatua jazo arte. Hiru hilabete beranduxeago, eginiko ekintza guziren oroigarria eskeini zion erregerari, baina bere ahaleginak oso eskertuegiak izan ez baitziren edo, handik urte gutxira liburu bat osatu zuen denaren berri emateko asmoz: *Memoria dirigida al gobierno español sobre los planes y operaciones puestos en ejecución para aniquilar la rebelión en las provincias del norte de España*, Frantziako Tolosan agertarazi izan zuena Henaulten moldiztegiaren 1841. urtean, eta hiru urte beranduxeago bigarren agerraldi batean Madilgo Narciso Sanchizen etxearrean. Bertan dioenez, bere asmoa egia Espainiako herriari jakinaraztea zen, berari zegokion gerra bukatzeko orduan. Bere kontaerian nabari da erabili erabide makiabekoak, bestenaz berak aitortzen duen bezala: *«Hace poco al caso que se hubieren impulsado aquellos acontecimientos por medios más o menos comunes y vulgarmente morales, lo importante es que los resultados hubiesen correspondido a los que tan ardentemente deseaban todos los buenos españoles, la conclusión de la guerra civil».*

Erabili izan zituen azpijokuen artean bada idazki apokrifoaren bitartez eginikoa. Esaterako, proklama bat egin izan zuen Frai Inazio Legardiak kaputxino nafar ospetsuak egin izan bailuan, Marotori aurkakoak, hauxe liberekin zegoela esaten zuena. Beste gutun bat ere egin zuen gerlar karlisten artean aguro kurritu izan zena, 7.000 ale zabaldu baitzuten: *«sembrándola entre los pueblos y entre los batallones de manera que no había voluntario que no tuviese un impreso».* Esangabe doa eskutitz hau Abiranetak berak euskaraz idatzi zuela, eta banatzaileen artean Baionako konsula eta Muñagorri zeuden. Gutuna honela hasten da: *«Euscal-dun necazari batec ojalatero bati ecribitzen dion cata».* Bertan gaztelakoei egotzen zaie gerlaren arrazoia, eta pakearen aldarrikapenaren azpian, armak uzteko deia egiten da. Abiranetak helburu duena naski liberalen garaipena da, nahiz hortarako arrazakeriaren aitzakia erabili: *«etorri ciran gaztelau alfer bazuac euscal-dun prestu eta nobleac engañatu eta alchaacitcera onen alava maitegarriaren contra, religioa eta fueroac defenditceco pretestoarequin (...) alchatu guiñan embustero oiei sinistuta, ta sei urte da ya gure gasteria dala eramana nai ezduela soldaduzara, bearreraco echean falta andia eguiten duela».*

■ Iruñeko Hiria Xake Torneo irekiko laugarren ihardunaldiko partida, 1994ko abenduaren 30an jokatua.

Felix Izeta (Gipuzkoa), Maisu Handia - Francisco Javier Otsoa (Bizkaia), 2.425 ELOkoa.

1.d4,f5; 2.g3,Zf6; 3.Ag2,g6; 4.Zh3,Ag7; 5.Zf4,d6; 6.d5,c6; 7.Zc3,g5; 8.Ze6,Ae6; 9.e6,De8; 10.Ag5,De6; 11.Dd3,bZ-d7; 12.Ah3,Zg4; 13.0-0. Zalduaren zutabea irekita dago. Txuriek arriskua hartu dute. 13....dZ-e5; 14.Dd1,Dg6; 15.Af4,Dh5; 16.Eg2,Zg6; 17.Ad2,e6; 18.e4,0-0-0; 19.f5,f5; 20.Ze4. Ez dago jaterik (Ag4 xa). 20....d5; 21.Zg5,hG-g8; 22.f3,Zh6; 23.Ze6,Gd7; 24.Zg7,gG-g7; 25.De2,dG-e7; 26.Dd3,Zh4 xa; 27.Eh1,Zf3. 28.Df3,Dh3. Sarrerarako lehenengo saioa izan da, peoi bat irabazita. Txuriek peoia berreskuratzerik oraindik badute. 29.aG-e1,b6; 30.Ah6,Dh6; 31.Df5 xa,Eb7; 32.Ge7

xa,Ge7; 33.Df3.

Ikus koadroa. 'Df2' jokaldiak zailtasun gehiago ematen zuen. Beltzak sartuko dira. 33....Dd2; 34.Gf2,De1 xa; 35.Eg2,Db2; 36.Df8,Dg7; 37.Df4,Dg6; 38.Dd2,De4 xa; 39.Eh3,De4; 40.Dg5,De4; 41.Gf4,De6 xa; 42.Eh4,De2; 43.h3,Gc7; 44.Df5,De7 xa; 45.Eh5,Da3. Peoien kokapen sakabanatuak eta erregearen posizio irekiak bigarren peoia irabaztea ekarri dute. 46.Gg4,Da2; 47.h4,Da3; 48.Df6,De7; 49.De7,Ge7; 50.Eh6,a5; 51.h5,b5; 52.Gf4,Eb6; 53.Gf8,b4; 54.g4,c5; 55.g5,c4; 56.g6,g6; 57.g6,b3; 58.b3,c3. Ikuspegi zorrotzak beltzei eman die garaipena. 59.g7,c2; 60.Gb8 xa,Gb7; 61.Gc8,Gc7; 62.Gb8 xa,Ec5; 63.g8=D,c1=D xa; 64.Eg6,Gc6 xa; 65.Ef5,De2 xa; 66.Eg5,Dd2 xa. Erregea harapatuta dagoenez, txuriek amore eman zuten.



**L**os Incansables Hernaniko txarangak aurten 25. urteurrena betetzen duela-eta, omenaldia egingo dio igandean Leitzako Aurrera Kirol Elkarteak. Eguna behar bezala ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatatu ditu Leitzako elkarteak eta bazkariak eta herri kirol saioak gain, Los Incansables txarangako egungo eta lehengo kideek kalejira berezia egingo dute Leitzako karraketan zehar.

## 25 urte nekatu gabe

EDURNE ELIZONDO / IRUÑA

Los Incansables txaranga Hernanin sortu zen 70eko hamarkadaren hasieran, Francisco Esnaola 'Paotxa', Joaquin Ortega 'Canario', Felipe Sagarna 'Zapa', Jesus Mari Zalakain 'Pipas' eta Domingo Castro 'Sietemesino' Urrietako jaietan jotzen elkarrekin topo egin zuten. Lehen elkarte horrek, jakina, fruituak eman zituen eta hurrengo urtean Leitzan elkartu ziren berriro. 1971. urtean, beraz, txaranga osatu zuten jada, nahiz eta urte bat geroagora arte Los Incansables izena ez zuten hartu. Izen hori, hain zuzen ere, Leitzan Los Incansables txarangako kideak ikusi zituen senar-emazte bikote bati bururatu zitzaion. Orduz geroztik, ezin hobeto egokitu zaie izena, Euskal Herriko herri eta jai guztiek baitute Hernaniko musikarien berri.

Hasierako boskote horretatik, hala ere, 'Pipas-ek' aspaldi egin zuen alde eta 'Paotxa', nahiz eta beste kideek bere laguntza behar duten aldioro jotzeko prest dauden, ez da jada txarangako kide iraunkorra. 'Zapa', berriz, Batallón Vasco Español-ek hil zuen etxeko atarian. 'Canario' eta 'Sietemesinos' kideak, hala ere, lehen une hartatik jarraitzen dute txarangan, jo eta jo, herri guztietako jaiak alaituz. Bi hauetaz gain, Urko Arozena 'Sofi', Mikel Ropero 'Txurrimuski', Andoni Elozegi 'Jesusita', Aitor Troitiño 'Bocanegra' eta Jose Maria Mendibil 'Tximin' dira txarangako kide. 'Ropero', 'La-



Los Incansables txarangaren estreinako taldea.

rra', 'Tate', 'Soro' eta beste hainbeste ere izan dira musikari nekaezin. Leitzan, noski, hauek guztiak izango dira.

Los Incansables sortu zutenetik, Euskal Herri osoko eta beste hainbat herrialdeetako herri askotan izan dira horretako kideak eta lana ez dute sekulan ere falta izan. Alderantziz, gero eta jai gehiagotan izan da Hernaniko txaranga eta aurten ere, maiatz alde-herrietako festak hasten direnetik uda amaitu arte herriz herri ibiliko dira giroa alaituz. Maiatzean, gainera, urteurrena ospa-

tzeko, Hernani, Billabona eta Tolosan kontzertuak eskainiko dituzte, bertan jaiak baitira Los Incansables sortu zuten kideak. Ospakizunak, hala ere, uda osoan zehar izango dira eta denboraldia amaitu bezain laster, euren kanta bilduko dituen diskoa grabatuko dute.

Los Incansables txarangak ez du kasualitatez jasoko Leitzan ongi merezitako omenaldia, musikari hauen eta Leitzaren arteko harremana aspaldikoa baita. Orain dela hogeita lau urte Leitzako jaiak alaitzera lehendabizi-

koz joan zirenetik, urtero izan dira bertako karraketan barna jo eta jo eta leitzarrak dantza eta dantza. Leitzan, hala ere, lehenagotik ezagutzen zuten Hernaniko txarangako kide guztiek eta tal-

**O**rain dela hogeita lau urte Leitzako jaiak alaitzera lehendabizikoz joan zirenetik, urtero izan dira bertan Los Incansables karraketan barna jo eta jo.

dea sortu eta Leitzara lanera joan aurretik, herrian zegoen beste txaranga batekin ere ibili ziren. Eta gustora gainera, antza denez, orduz geroztik beti itzuli baitira. Leitzako herritarrek ere pozik hartzen dute Los Incansables txarangaren bisita.

Hernaniko txarangaren 25. urteurrena, beraz, aitzakia polita izan da leitzarrentzat aspaldiko lagunei omenaldia egiteko. Juan Ramon Lizarragak, Aurrera Kirol Elkartearen kideak, aipatzen duenez, «bagenuen halakorik prestatzeko gogoia eta azkenik egin dugua». Los Incansables taldeko kideek ere, Lizarragak dioenez, pozik hartu zuten omenaldiaren ideia eta igandean, noski, Leitzan izango dira.

## Kalejira berezia

E.E. / IRUÑA

Los Incansables txarangaren omenez Leitzako Aurrera Kirol Elkarteak iganderako prestatutako jai eguna goizean goiz hasiko da, bederatziak aldera, argisoinuaren hotsez. Ondoren, goizeko hamar t'erdia aldera, meza nagusia egingo dute Leitzako elizan eta apaizaren hitzak entzun ondoren, herriko dantzari txarangako kide guztiak omenez euren ikuskizuna aurkeztuko dute, eguerdi partean. Eta bazkaldu aurretik ere, herri kirol saio ikusgarria antolatu du Aurrera Kirol Elkarteak eta omenaldia Leitzan izanik, noski, Mieltxo Saralegi, Iñaki Perurena eta Saralegi anaiak izango dira protagonista.

Herri kirol saioa bukatuta Los Incansables txarangaren eskutik kalejira izango da Leitzako karraketan barna. Kalejira berezia izango da, ordea, edozein herri-tako jaietan baino kide gehiago izango baitu Hernaniko txarangak behingoz. Leitzan, hain zuzen ere, orain dela 25 urte txaranga sortu zenetik musikari nekaezin izan diren guztiak bilduko

dira. Osotara, Los Incansables taldeko kideak aipatu dutenez, hogeita bat musikari inguru bilduko dira kalejira honetan eta, banda baten antzera, herri osoa zeharkatuko dute. Kalejira berezia, nonbait.

Ordubi t'erdia aldera, berriz, herri bazkaria izango da Aurrera Kirol Elkarteak antolatuta. Ongi bazkaldu ondoren, berriro ere herriko kaleak hartuko dituzte musikariak Leitzako herritar guztiekin batera eta arratsaldeko kalejirak emango dio amaiera igandeko omenaldiari.

Erran bezala, uda osoan zehar ospatuko dute txarangako kideek 25. urteurrena baina Leitzako omenaldiak, ziuurrik, esanahi berezia izango du beraiantzat, herri honekin duten harremana ere berezia baita. Herri askotan ibili da Los Incansables txaranga baina guztietan ez da berdina izan herritarren erantzuna. Leitzako herritarrek orain 25 urte egindako harrerarekin, ordea, pozik egon dira beti txarangako kide guztiak. Aurtengo jaietan ere Leitzan izango dira musikari nekaezinak, hainbeste urtetako ohiturari jarraituz.



Leitzan ez dute inoiz huts egin, duela 25 urte hasi zirenetik.

# «Gogoa moteldua dugu»

A. BARANDIARAN / IRUNEA

Eugenio Arraiza aukeratu du Eusko Ikaskuntzaren biltzar nagusiak Nafarroako lehendakariorde, eta joan den astean hasi zen jardueran. Idazkaritzan zuen lana utzi eta bi urtera, erakundera itzuli da Nafarroako hainbat elkartetako partaide nekazina dena, nahiz eta Goyo Monreal lehendakariak Mikel Aranbururen kandidatura bultzatu zuen. Bere asmo nagusia «lan

Egin zen batzar orokorrean beste hautagaia —Mikel Aranburu— zegoen, eta bazkideek ikusi zuten hobe zela zegoen postuan —idazkariordea batzorde eragilean— jarraitzea eta ni hemen aritzea, Tomas Urzainkiren ondorengo gisa. Baina gero Goyo Monrealek deitu zion esateko aurkeztu behar zela, berak bere zerrendarako nahi zuela eta hemengo bazkideek, hala eta guztiz ere, berenari eutsi zioten. Ez zegoen bien egitas-

proiektu ez dira hasi ere egin, horrekin bakarrik ezin baitira ziurtatu. Etorkizuna, beraz, ez da oso ziurra, urtez urte ikusi behar baita zer ematen duten diputazioek eta Jauraritzak. Eta, jakina, Madrilgo dirulaguntza hori ez da errepikatuko. **EGUNKARIA.**— Baldintza latzak dituzue, beraz, proiektuak aurrera eramateko. **ARRAIZA.**— Uste dut dirulaguntza konkretuak lortu behar direla ekimen konkretuetarako. Gero eta gehiago ikusten

toria, landareak eta fauna, turismoa... Beste herrialdeetan ez dakit horrelakorik egin den.

**EGUNKARIA.**— Zer-nolakoa da Eusko Ikaskuntzako bazkideen gogoa orain?

**ARRAIZA.**— Gogoa moteldu egin da, lehen zeuden batzuek utzi egin dutelako. Ikusteke dago berriro itzuliko ote diren eta lehen zuten animo hori berreskuratuko ote duten.

**EGUNKARIA.**— Zergatik moteldu da? Zailtasunengatik, jende egokia ez zutelako ikusten...?

**ARRAIZA.**— Begira, Nafarroan dugun eginkizuna hain handia da! Hemen zegoen jendea ez dago orain beren etxee-



Eugenio Arraiza.

JOXE LACALLE

«Euskal kulturako eta euskarako izan den giroa oso malda gora jarri zaigu azkenetan. Ematen du euskaldunok ez garela hemengoak».

tan, edozer gauza egiteko lan handia behar delako: Euskalerrria Irratia, Bertsolarien Elkarte, ikastolak, auzo bateko euskara taldea... eta toki guztietan jende bera da. Beraz, elkarte batean ez badute giro polita eta erakargarria aurkitzen, jendea gustura ez bada, berehala aukera dute edozein tokitan lan egiteko. Asmatu egin behar da, beraz, zertarako den Eusko Ikaskuntza, gauza konkretuak antolatu behar dira eta aprobetxatu erakundeak ematen dituen aukerak. Bestela, nik uste dut jendea nekaturik dagoela, Nafarroan euskararekiko eta euskal kulturarekiko izan den giroa benetan oso malda gora jarri zaigulako, bai sozialistekin bai UPNkoekin. Ematen zuen euskaldunok ez ginela hemengoak, utopikoak eta bakar batzuk ginela.

## Eugenio Arraiza

EUSKO  
IKASKUNTZAKO  
LEHENDAKARIORDEA



SOSLATA

### Bi urte geroago

Bi urte geroago Eusko Ikaskuntzaren egoitzan dugu berriro ere Eugenio Arraiza, inoiz joan izan ez balitz bezala. Lehendakariorde hautaketarako aurkezpen karta-edo egin behar zuen, helburuak zehaztuz, baina egokiago iruditu zitzaion lanaren norabideak aurkeztea. «Hil honetan egingo dugun biltzarrean ikusiko dugu zein jende dagoen prest lan egiteko, eta horren arabera zehaztuko ditugu helburuak». Norabide horien barruan Euskal Herriko beste lurraldeekin dauden lokarriak sendotzekoa azpimarratzekoa da, eta baita unibertsitatearen eta gizartearen arteko zubia eraikitzekoa ere. Halaber, elkartearen gizatasunari buruz ere bi hitz azaltzen dira zirriborroan: 'kanpokoekiko irekiak, gure artean goxoak'.

egiteko gogoa berreskuratzea» dela dio Arraizak.

**EGUNKARIA.**— Zein gogo dakarzu Eusko Ikaskuntzaren lan berri hau egiteko?

**EUGENIO ARRAIZA.**— Eusko Ikaskuntza berpiztu zenean, 1980 aldera, bazkide kopuru polita bildu zen, eta gauza garrantzitsuak egin ziren, bai Euskal Herriari baita Nafarroan ere. Ondoren apaldu egin zen hemengo elkartearen bizitza, eta hona itzuli naiz hasieran zeuden asmo horiek berriro piztu nahian edo.

**EGUNKARIA.**— Lehendakariorde izateko hautagai bat baino gehiago izateak sentzibilitate edo proiektu ezberdinak daudela esan nahi du?

**ARRAIZA.**— Ez dut uste, gauzak nola gertatu diren ikusita.

moen arteko berezitasunik, baina jendeak pentsatu zuen gaztea izanik izango zuela aurrerantzean ere denbora postu horretan aritzeko, edo nahiago izan zuten nere esperientzia...

**EGUNKARIA.**— Ez da gaur goizekoa Eusko Ikaskuntzaren egoera ekonomikoaren larritasuna. Zer aldaketa izan da zuk idazkaritza utzi zenuenetik hona?

**ARRAIZA.**— Ez niri galdetu Eusko Ikaskuntzaren egoera ekonomikoaz, ez baitut oraindik ezagutzen. Joan den batzarrean aipatu egin zuten iazko aurrekontua bete egin zela Madrilgo bi ministerioren —Kultura eta Hezkuntza— diruaren bidez. Horrela berdinu zen aurrekontua. Hala ere, hastekotan zeuden hainbat

ari gara gobernuak ez dutela dirulaguntzarik ematen elkarrean sustengurako, proiektu konkretuetarako baizik. Eta horrela jokatu behar da, beste diru iturriak ez dago eta.

**EGUNKARIA.**— Zein da Nafarroaren pisua Eusko Ikaskuntzaren egitura nazionalaren barruan?

**ARRAIZA.**— Ez da erraza neurtzen, sailak amankomunak izaten baitira. Nabarmena izan da toponimia biltzea, hori Nafarroan hasi ginelako eta beste inongo herrialdeetan oraindik ez delako egin. Egin dira Aezkoari buruz lan interdisciplinario batzuk oso interesgarriak, Nafarroako Gobernuak behar bati erantzuna emanaz, eta hor ikertu dira hango ohitura, folklorea, his-

## NOSKI JATOR

\* EUSKALERRIA IRRATIKO AFARIA \*

© Zaldi EROA

